

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

Behin betiko onartzea hiri hondakin solidoak bildu eta deuseztatzeko zerbitzuaren zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketa

Jendaurreko epea amaitu delarik Udaltzarak 2021eko urriaren 27ko ohiko bilkuran onartu eta ALHAOn (128 zk.) 2021eko azaroaren 10ean argitaratu zen erabakiari dagokionez, zeinaren bidez onartu baitzen zerbitzuen eta administrazio jardueren tasen zerga ordenantza aldatzea 2022ko ekitaldirako, hiri hondakin solidoak bildu eta deuseztatzeko zerbitzuaren tasaren eranskinean, eta epe horretan ez denez erreklamaziorik aurkeztu, behin-behineko erabaki hori behin betiko bihurtzen da, bat etorri apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 49. artikuluan eta uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, Toki Ogasunak arautzen dituenak, 16.3 artikuluan ezarritakoarekin.

Foru arau horrek 16.4 artikuluan jasotakoa betez, zerga ordenantza horretan aldatutako testua argitaratzen da, zeinak ondorioak izango baititu ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera; honela dio, hitzez hitz:

ZERBITZU PUBLIKOEN ETA ADMINISTRAZIO JARDUEREN TASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA: HIRI HONDAKIN SOLIDOAK BILDU ETA DEUSEZTATZEKO ZERBITZUA (URTEKO KUOTA, 2022KO EKITALDIA)

ERABILERA	TARIFAK EUROTAN (URTEKO KUOTA)
ETXEBIZITZAK	84,54
PROFESIONALEN LOKALAK	84,54
SALTEGIAK	169,00
OSTALARITZA-KIROLAK-BESTE BATZUK	
TXOKOAK	236,70
TABERNA-KAFETEGIAK	236,70
JATETXEA, SARDEXKA 1	405,86
JATETXEA, SARDEXKA 2	507,02
OSTATUA-LANDA TURISMOA	207,86
HOTELA	207,86
ADINEKOEN EGOITZA, 20 PLAZA ARTE	207,86
ADINEKOEN EGOITZA, 21-40 PLAZA	348,52
ADINEKOEN EGOITZA, 40 PLAZA BAINO GEHIAGO	489,10
KIROL ZONA	700,20
GIZARTE ETXEA	150,32
HÍPIKA	168,64

ERABILERAK	TARIFAK EUROTAN (URTEKO KUOTA)
INDUSTRIA	
500 m ² ARTE	186,98
501- 1.000 m ²	684,22
1001- 3.000 m ²	1.048,60
3.001- 10.000 m ²	1.572,98
10.000 m ² BAINO GEHIAGO	2.097,40

Guztien jakin dezaten argitaratzen da.

Izarra, 2021eko abenduaren 27a

Alkatea

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAJA FERNÁNDEZ DE LANDA